

## PROPUESTA DE MICROCREDENCIAL

### Evaluación cuantitativa del impacto de las políticas públicas

Alaitz Artabe y Ainhoa Vega, Profesoras Agregadas de la Facultad de Economía y Empresa e Investigadoras Asociadas en la Fundación ISEAK

En los últimos años, tanto a nivel internacional como nacional y autonómico, se ha consolidado un consenso normativo y técnico en torno a la necesidad de institucionalizar la evaluación rigurosa de las políticas públicas como herramienta clave para mejorar la eficiencia del gasto público, la transparencia y la rendición de cuentas.

Por un lado, la Unión Europea, a través de su marco de *Better Regulation*, exige que todas las iniciativas legislativas y estratégicas estén sustentadas en análisis de impacto previos y procesos sistemáticos de evaluación ex post [1]. En paralelo, la OCDE aprobó en 2022 una recomendación formal para que sus países miembros integren de forma estructural y transversal la evaluación en sus sistemas de gobernanza, promoviendo el uso de evidencia cuantitativa y métodos contrastables como base para la toma de decisiones públicas [2].

Por otra parte, a nivel estatal, el Gobierno de España dio también un paso decisivo en esta dirección con la aprobación de la **Ley 27/2022**, de institucionalización de la evaluación de políticas públicas, que establece un marco jurídico y organizativo: desde la creación de una Agencia Estatal independiente hasta la planificación anual de evaluaciones estratégicas [3].

En el ámbito autonómico, el **Gobierno Vasco** ha desarrollado una guía propia de evaluación, promoviendo una cultura de mejora continua, transparencia y aprendizaje institucional, especialmente relevante en el diseño e implementación de programas financiados con fondos europeos o destinados a colectivos vulnerables [4].

En este contexto normativo, la microcredencial propuesta busca proporcionar una formación aplicada y actualizada sobre técnicas cuantitativas de evaluación de políticas públicas. Para entender cómo realizar un análisis de impacto cuantitativo, se abordarán los principales enfoques metodológicos en la literatura actual, incluyendo la **metodología contrafactual** [5], tanto experimental como cuasiexperimental, mediante el uso de microdatos administrativos y encuestas. Todo ello orientado a responder a una demanda creciente de capacidades técnicas por parte de las administraciones públicas, organizaciones del tercer sector y consultorías comprometidas con la mejora de la acción pública basada en datos.

#### Objetivos

- Comprender el papel estratégico de la evaluación en la mejora de la acción pública, identificando sus funciones como instrumento de

aprendizaje institucional, transparencia y toma de decisiones basada en evidencia.

- Dominar los fundamentos conceptuales y metodológicos de las principales técnicas de evaluación cuantitativa aplicadas a políticas públicas y programas sociales.
- Adquirir competencias prácticas en análisis de datos para la medición de impactos.
- Desarrollar una mirada crítica y ética sobre la planificación, implementación y comunicación de procesos evaluativos.
- Conocer experiencias y estudios de caso en sectores clave (empleo, educación, salud, protección social) que ilustren el uso real de las evaluaciones para orientar decisiones públicas.
- Fortalecer la capacidad de comunicar resultados de forma clara, rigurosa y adaptada a distintos públicos (gestores, ciudadanía, medios, responsables políticos), contribuyendo así a difundir la cultura de la evaluación y el uso del dato.

## **Resultados de aprendizaje**

Al finalizar esta microcredencial, la persona participante será capaz de:

1. Explicar los fundamentos conceptuales de la evaluación de impacto de políticas públicas, así como identificar las situaciones donde existe la necesidad de realizar una evaluación de una política pública.
2. Diferenciar entre distintos tipos de evaluación (impacto, proceso, seguimiento) y seleccionar la metodología adecuada en función del objetivo evaluativo.
3. Diseñar un esquema básico de evaluación contrafactual (experimental o cuasiexperimental).
4. Identificar y utilizar fuentes de datos relevantes para la evaluación, incluyendo registros administrativos y encuestas.
5. Realizar análisis cuantitativos básicos con R aplicados a problemas de política pública.
6. Interpretar y comunicar los resultados de la evaluación de forma comprensible para distintos públicos (técnico, político, mediático y social).

## **Requisitos previos de acceso y criterios de admisión**

*Requisitos previos:*

- Formación universitaria de grado o equivalente (preferentemente en áreas de ciencias sociales, económicas, matemáticas, estadísticas o afines).
- Conocimientos básicos de estadística descriptiva.
- Competencias digitales básicas.

*Criterios de admisión (en caso de alta demanda):*

- Adecuación del perfil académico y/o profesional al contenido de la microcredencial.
- Experiencia previa en programas o políticas públicas (valorable pero no obligatoria).

### **Público objetivo**

Este programa está diseñado para un público diverso que comparte un interés común en la evaluación rigurosa de políticas públicas y programas sociales. En particular, está dirigido a:

- Personal técnico y directivo de administraciones públicas, organizaciones del tercer sector y empresas privadas que deseen incorporar herramientas de evaluación cuantitativa en su práctica profesional.
- Graduados y posgraduados en ciencias sociales, economía, estadística, matemáticas, políticas públicas u otras áreas afines que busquen una especialización práctica en evaluación de impacto.
- Investigadores y académicos interesados en aplicar metodologías empíricas en el análisis de programas y políticas a nivel nacional o internacional.
- Profesionales de la comunicación, periodistas y responsables políticos que quieran mejorar su capacidad para interpretar, difundir y utilizar resultados de evaluaciones como parte de procesos de toma de decisiones informadas.

### **Programa**

- Introducción. Comprender por qué y cuándo es importante realizar una evaluación cuantitativa del impacto de políticas públicas y otros programas; qué es una evaluación, para qué sirve, y por qué es esencial.
- Cuándo y cómo diseñar una evaluación: pasos y fases.
- Tipos de evaluación y su propósito. Distinguir entre evaluación de impacto contrafactual vs. evolución general vs. seguimiento y monitoreo basado en indicadores.
- Introducción a la evaluación de impacto contrafactual.
- Fuentes de datos y herramientas básicas.

### **Metodología**

El curso adopta un enfoque centrado en el aprendizaje activo, combinando clases teóricas y prácticas para que el estudiantado adquiera habilidades aplicadas en la evaluación de políticas públicas. El formato será online en directo.

- **Clases teóricas y prácticas online:** Cada sesión combinará la exposición de conceptos teóricos con talleres prácticos orientados al uso de software estadístico (como R, Stata o Python) y el análisis de casos reales. Desde la primera semana, el alumnado trabajará con datos públicos y realizará ejercicios de evaluación de impacto.

- **Tutorización y acompañamiento personalizado:** Se ofrecerán sesiones de mentoría para orientar al alumnado en su proyecto, resolver dificultades con el manejo de herramientas cuantitativas y guiar la aplicación de metodologías rigurosas y éticas.
- **Recursos universitarios complementarios:** El alumnado contará con acceso a las bases de datos, software especializado y bibliografía digital proporcionada por la universidad, así como al soporte técnico y académico necesario para el desarrollo de sus proyectos.

## Pruebas de evaluación

- **Tareas evaluables:** La evaluación del curso se basará en un conjunto de tareas aplicadas que permitirán verificar la comprensión y la capacidad de aplicación de los conceptos vistos en las clases magistrales y prácticas. Estas tareas incluirán ejercicios de análisis de datos, interpretación de resultados y resolución de casos reales de políticas públicas.

Además, se valorará el desarrollo y presentación de un proyecto final de evaluación cuantitativa, así como la participación activa en las actividades prácticas y discusiones del curso.

## Referencias

- [1] Comisión Europea (2023). *Better Regulation Toolbox*. Dirección General de Secretaría General.  
[https://commission.europa.eu/law/law-making-process/better-regulation/better-regulation-guidelines-and-toolbox\\_en](https://commission.europa.eu/law/law-making-process/better-regulation/better-regulation-guidelines-and-toolbox_en)
- [2] OECD (2022). *Recommendation of the Council on Public Policy Evaluation* (OECD/LEGAL/0478).  
<https://legalinstruments.oecd.org/en/instruments/OECD-LEGAL-0478>
- [3] Jefatura del Estado (2022). *Ley 27/2022, de 20 de diciembre, de institucionalización de la evaluación de políticas públicas en la Administración General del Estado*. Boletín Oficial del Estado, núm. 306, de 22 de diciembre de 2022.  
<https://www.boe.es/eli/es/l/2022/12/20/27>
- [4] Gobierno Vasco (s.f.). *Guía de Evaluación de Políticas Públicas*.  
[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/evaluacion\\_coordinacion/es\\_def/adjuntos/guia\\_evaluacion\\_gv\\_pip.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/evaluacion_coordinacion/es_def/adjuntos/guia_evaluacion_gv_pip.pdf)
- [5] Comisión Europea (s.f.). *Counterfactual Impact Evaluation*.  
[https://joint-research-centre.ec.europa.eu/projects-and-activities/counterfactual-impact-evaluation\\_en](https://joint-research-centre.ec.europa.eu/projects-and-activities/counterfactual-impact-evaluation_en)

## MIKROKREDENTZIALAREN PROPOSAMENA

### Politika publikoen eraginaren ebaluazio kuantitatiboa

Alaitz Artabe eta Ainhoa Vega, Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Irakasle Agregatuak  
eta ISEAR Fundazioko ikertzaile elkartuak

Azken urteotan, bai nazioartean, eta baita nazio-mailan eta autonomia mailan ere, politika publikoen ebaluazio zorrotza instituzionalizatzeko beharraren inguruan adostasun handia dago, eta honek horren inguruko testuinguru arauemaile eta teknikoak finkatzera eramanez erakunde publiko desberdinak, gastu publikoaren eraginkortasuna, gardentasuna eta kontu-emea hobetzeko funtsezko tresna gisa.

Alde batetik, Europar Batasunak, *Better Regulation* en esparruaren barruan, eskatzen du legegintzako ekimen eta ekimen estrategiko guztiak aurretiaz burututako eragin-analisi batean eta ex post burututako den ebaluazio-prozesuetan oinarrituta egon behar direla [1]. Aldi berean, ELGAK gomendio formal bat onartu zuen 2022an, estatu kideek politiken ebaluazioa beraien gobernantza-sistemen modu integral batean eta, baita transbertsal batean txerta zezaten, ebidentzia kuantitatiboa eta kontrastatu daitezkeen metodoen erabilera sustatuz erabaki publikoak hartzeko oinarri gisa [2].

Bestalde, estatu mailan, Espainiako Gobernuak ere urrats erabakigarria eman zuen norabide horretan, 27/2022 Legea, politika publikoen ebaluazioa instituzionalizatzeari buruzkoa, onartuta. Lege horrek esparru juridiko eta antolaketa-esparru bat ezartzen du: Estatu Agentzia independente bat sortzetik hasi eta ebaluazio estrategikoen urteko plangintzaraino [3].

Autonomia-eremuan, **Eusko Jaurlaritzak** ebaluazio-gida propioa garatu du, etengabeko hobekuntzaren, gardentasunaren eta erakunde-ikaskuntzaren kultura sustatuz, bereziki garrantzitsua Europako funtsekin finantzaturako edo kolektibo kalteberei zuzendutako programak diseinatu eta ezartzeko [4].

Arau-testuinguru horretan, proposatutako mikrokredentzialak politika publikoak ebaluatzeko teknika kuantitatiboak buruzko prestakuntza aplikatu eta eguneratua eman nahi du. Inpaktu kuantitatiboaren azterketa nola egin ulertzeko, gaur egungo literaturako ikuspegi metodologiko nagusiak jorratuko dira, **metodologia kontrafaktuala** [5] barne, esperimentala zein ia esperimentala, mikrodatu administratiboak eta inkestak erabiliz. Hau guztia, administrazio publikoek, hirugarren sektoreko erakundeek eta datuetan oinarritutako ekintza publikoa hobetzeko konpromisoa duten aholkularitzek aipaturako aspektu hauen inguruko gaitasun teknikoekiko erakutsi duten jakin-mina erantzutera bideratuta dago.

## Helburuak

- Ekintza publikoaren hobekuntzan ebaluazioak duen zeregin estrategikoa ulertzea, eta haren funtzioak identifikatzea, ikaskuntza instituzionalerako, gardentasunerako eta ebidentzian oinarritutako erabakiak hartzeko tresna gisa.
- Politika publikoei eta gizarte-programei aplikatutako ebaluazio kuantitatiboko teknika nagusien oinarri kontzeptualak eta metodologikoak menderatzea.
- Inpaktuak neurtzeko datuak aztertzeko gaitasun praktikoak eskuratzea.
- Ebaluazio-prozesuen planifikazioari, inplementazioari eta komunikazioari buruzko begirada kritikoa eta etikoa garatzea.
- Erabaki publikoak bideratzeko ebaluazioen benetako erabilera erakusten duten funtsezko sektoreetako (enplegua, hezkuntza, osasuna, gizarte-babesa) esperientziak eta kasu-azterketak ezagutzea.
- Emaizak argi, zorrotz eta hainbat publikori (kudeatzaileak, herritarrak, bitartekoak, arduradun politikoak) egokituta komunikatzeko gaitasuna indartzea, eta, horrela, ebaluazioaren kultura eta datuaren erabilera zabaltzen laguntzea.

## Ikaskuntzaren emaitzak

Mikrokredentzial hori amaitzean, parte-hartzailea:

1. Politika publikoen inpaktuaren ebaluazioaren kontzeptuzko oinarriak azaltzeko, eta politika publiko baten ebaluazioa egiteko beharra dagoen egoerak identifikatzeko gai izango da.
2. Ebaluazio motak bereizteko (eragina, prozesua, jarraipena) eta, ebaluazio helburuaren arabera metodologia egokia hautatzeko gai izango da.
3. Oinarritzko ebaluazio kontrafaktual bat (esperimentala edo ia esperimentala) diseinatzeko gai izango da.
4. Ebaluaziorako garrantzitsuak diren datu-iturriak identifikatzeko eta erabiltzeko, administrazio-erregistroak eta inkestak barne, gai izango da.
5. Rren bitartez, politika publikoko arazoei aplikatutako oinarritzko analisi kuantitatiboak egiteko gai izango da.
6. Mota desberdinetako publikoak (teknikoa, politikoa, mediatikoa edo soziala) ulertzeko modu batean, ebaluazioaren emaitzak interpretatzeko eta komunikatzeko gai izango da.

## **Aldez aurreko baldintzak eta onartzeko irizpideak (eskaera handia egonez gero)**

*Aldez aurreko baldintzak:*

- Graduako unibertsitate-prestakuntza edo baliokidea (lehentasuna izango dute gizarte-zientzietan, ekonomia-zientzietan, matematiketan, estatistiketan edo antzekoetan prestakuntza dutenek).
- Estatistika deskriptiboko oinarrizko ezagutzak.
- Oinarrizko gaitasun digitalak.

*Onartzeko irizpideak (eskari handia izanez gero):*

- Mikrokredentzialaren edukira egokitzen den profil akademikoa eta/edo profesionala.
- Aurretiko esperientzia programa edo politika publikoetan (baloragarria, baina ez derrigorrezkoa).

## **Xede-audientzia**

Programa hau politika publikoen eta gizarte-programen ebaluazio zorrotza egiteko interesa partekatzen duten publikoentzat diseinatuta dago. Berezi, helburu hauek ditu:

- Beren praktika profesionalean ebaluazio kuantitatiboko tresnak sartu nahi dituzten administrazio publikoetako, hirugarren sektoreko erakundeetako eta enpresa pribatueta teknikiariak eta zuzendariak.
- Politika publikoen inpaktuaren ebaluazioan espezializazio praktikoa bilatzen duten gizarte-zientzietan, ekonomian, estatistikan, matematikan, politika publikoetan graduatuak edo baita antzeko beste arlo batzuetan graduatuak ere.
- Estatuan edo nazioartean programak eta politikak aztertze metodologian enpirikoak aplikatzeko interesa duten ikertzaileak eta akademikoak.
- Beraien erabakiak hartzerako orduan ebaluazioen emaitzak interpretatzeko, zabaltzeko eta erabiltzeko gaitasuna hobetu nahi duten komunikazioko profesionalak, kazetariak eta arduradun politikoak.

## **Programa/edukia**

- Sarrera. Politika publikoen eta beste programa batzuen eraginaren ebaluazio kuantitatiboa egitea zergatik eta noiz den garrantzitsua ulertzea; zer den ebaluazio bat, zertarako balio duen, eta zergatik den funtsezkoa.
- Ebaluazioa noiz eta nola diseinatu: urratsak eta faseak.
- Ebaluazio-motak eta haien helburua. inpaktuaren ebaluazioa metodologia kontrafaktualaren bidez vs. bilakaera orokorra vs. jarraipena eta adierazleetan oinarritutako monitorizazioa bereiztea.
- Sarrera inpaktuaren ebaluaziorako erabiltzen den metodologia kontrafaktualera.

- Datu-iturriak eta oinarrizko tresnak.

## Metodologia

Ikastaroak ikaskuntza aktiboan oinarritutako ikuspegia kontsideratzen du, klase teorikoak eta praktikoak konbinatuz, ikasleek politika publikoen ebaluazioan aplikatutako trebetasunak eskura ditzaten. Zuzeneko online formatua erabiliko da.

- **Online eskola teoriko eta praktikoak:** Saio bakoitzean kontzeptu teorikoen azalpena, software estatistikoen (R, Stata edo Python) bidezko tailer praktikoak eta kasu errealen analisia konbinatuko dira. Lehen astetik ikasleek datu publikoekin lan egingo dute eta inpaktua ebaluatzen ariketak egingo dituzte.
- **Tutoretza eta laguntza pertsonalizatua:** Mentoretza-saioak eskainiko dira ikasleak beren proiektuan orientatzeko, tresna kuantitatiboen erabilera izan ditzaketen zailtasunak konpontzeko eta metodologia modu zuzen eta etikoan aplikatzen laguntzeko.
- **Unibertsitate-baliabide osagarriak:** Ikasleek sarbidea izango dute unibertsitateak ahalbidetzen dituen datu-baseetara, software espezializatura eta bibliografia digitalera, bai eta beren proiektuak garatzeko behar duten euskarri tekniko eta akademikora ere.

## Ebaluazio-probak

- **Ataza ebaluagarriak:** Ikastaroaren ebaluazioa aplikatutako ataza multzo batean oinarrituko da, eskola magistraletan eta praktikoetan ikusitako kontzeptuak ulertu direla eta aplikatzeko gaitasuna dutela egiaztatzen. Zeregin horietan, datuak aztertzen, emaitzak interpretatzen eta politika publikoetako benetako kasuak ebazteko ariketak egingo dira.

Gainera, ebaluazio kuantitatiboko amaierako proiektu baten garapena eta aurkezpena baloratuko dira, baita ikastaroko jardura praktikoetan eta eztabaidetan aktiboki parte hartzea ere

## Erreferentziak

- [1] Europar Batasun (2023). *Better Regulation Toolbox*. Idazkaritza Nagusiko Zuzendaritza Nagusia  
[https://commission.europa.eu/law/law-making-process/better-regulation/better-regulation-guidelines-and-toolbox\\_en](https://commission.europa.eu/law/law-making-process/better-regulation/better-regulation-guidelines-and-toolbox_en)
- [2] ELGA22). *Recommendation of the Council on Public Policy Evaluation* (OECD/LEGAL/0478).  
<https://legalinstruments.oecd.org/en/instruments/OECD-LEGAL-0478>
- [3] Estatuko Burutza (2022). *27/2022 Legea, abenduaren 20ekoa, Estatuko Administrazio Orokorraren politika publikoen ebaluazioa instituzionalizatzena*. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 306. Ak., 2022ko



abenduaren 22koa.

<https://www.boe.es/eli/es/l/2022/12/20/27>

- [4] Eusko Jaurlaritza (d.g). *Eusko Jaurlaritzaren Politika Publikoak Ebaluatzeko Gida*.

[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/evaluacion\\_coordinacion/es\\_def/adjuntos/guia\\_evaluacion\\_gv\\_pip.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/evaluacion_coordinacion/es_def/adjuntos/guia_evaluacion_gv_pip.pdf)

- [5] Europako Batzordea (d.g.). *Counterfactual Impact Evaluation*.

[https://joint-research-centre.ec.europa.eu/projects-and-activities/counterfactual-impact-evaluation\\_en](https://joint-research-centre.ec.europa.eu/projects-and-activities/counterfactual-impact-evaluation_en)